

erriola kilometroak

2023 ORERETA-ERRETERIA



orereta
ikastola



ikastolen
elkartea



Hauk dira Gipuzkoarako eraikitzen ari garen etorkizunerako oinarriak. Gure ekonomia indartzeko, pertsonak babesteko eta gure ingurumena zaintzeko lanean ari gara. Gure etorkizuna orain hasten delako.

Etorkizuna *Orain.*

etorkizunaeraikiz.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN



Badator Kilometroak eguna

Urriaren lehenengo igandea, Gipuzkoako Ikastolen jai egun eta aldarrikapen egun handia da. Urte luze bateko lanaren bukaera jaia. Euskalzale, ikastolazale, herrizale asko biltzen dituenak. Zaleak ezezik ekintzaile eta egileak ere, ikastolagile eta herrigile ugari.



Nekane ARTOLA
Kilometroak Kultur Elkarteko Lehendakaria

Orereta Ikastolak Erriola lelopean antolatu duen hau 47. Kilometroak da. Gipuzkoako Ikastoletako kideok 1977tik antolatzen dugun jaia.

47 aldiz antolatzea sekulako erronka da gure mugimenduarentzat. Gipuzkoako ikastoletako komunitatearen kemen eta leialtasunari esker aurrera egin duena baina ezinezkoa litzatekeena ondoan izan ditugun ehunka eragile, elkarte, erakunde eta norbanakoen laguntzarik gabe. Eskerrik asko urte luze hauetan bidelagun izan zareten guztiei.

Garai korapilatsuak bizi ditugu, erronka potoloak ditugu esku artean eta ziurgabetasuna egunerokoan barneratzen ari den sentsazioa da. Abiadura handiko garai hauetan, gurea indartzeko ahaleginetan ari gara. Tokioa erdigunean jartzea baita globalizazioaren abiadurari aurre egiteko modua.

Tokioa da Ikastola eredu, bertakoa, komunitate aktibo eta bizia duena. Kilometroak da horren islada. Kilometroak da Gipuzkoako ikastolen ikur, izen eta izan. Kilometroak da ikastola eredu, gure eskaintza pedagogikoaren parte. Kilometroak garapen kolektiboa da. Kilometroak herrigintza eta elkarlana da. Kilometroak euskara eta euskal kultura da.

Kilometroak Euskal Herriko agendaren parte da. Kilometroak gure baloreak zabaltzeko ekimena da, jendarteari ekarpena egiteko modua. Kilometroak antolatuz egiten ditugu gure ikasle, langile eta guraso ikastolazale eta ikastolagile. Kilometroak elkartasuna, atxikimendua, auzolana eta konpromisoa da. Kilometroak Nafarroa Oinez, Herri Urrats, Ibilaldia eta Araba Euskaraz da. Kilometroak antolatzea, beraz, ezinbestekoa da lortu nahi dugun etorkizuna eta herria eraikitzeko.

Euskal jendarteari eta hezkuntza sistemari orain arte egin diogun eta egin nahi diogun ekarpenaz aritzeko parada izango dugu ikasturte honetan Euskal Herriko Ikastolen VII batzarraren eztabaidaren baitan. Izan ere gurean dena ez da urre, eta jendartean somatzen ditugun indibidualismo joerek gurean ere badute islada. Baina sinistuta nago Ikastolon ereduak baduela etorkizuna eta beraz, eztabaida honen ondorioetako bat izango dela Kilometroak urte luzez antolatzeko ardura hartuko dugula Gipuzkoako Ikastolak.

Errio bizia da gure mugimendua, komunitateko kideen konpromiso eta kemena garraiatuz Euskal Herriko txoko desberdinetara euskara eta euskal kulturaren olak eraikitzeko indarra eraman dituenak.

Erriola, Herriola, Ikastola.



Euskara marean gora, Erriola!

lazko urriaren 2an, Ibarra, ilusioz eta gogoz hartu genuen 2023ko Kilometroak Erreterria-Oreretan antolatzen ari garen, Orereta Ikastolak 60 urte betetzen dituen ikasturte honetan. Orduan esaten genuen urte osoko lanaren eta ekintzen bidez, ikastola zer den eta gure oinarriak eta bereizgarriak zein diren erakutsi nahi genuela. Baina hori ez genuela bakarrik egin nahi: dei berezia egiten genien gure ikastolako komunitate osoari, herriko eragileei eta Gipuzkoako gainerako ikastolei, Kilometroak elkarrekin pentsatzeko eta elkarrekin egiteko.



Itziar NAVARRO
Orereta Ikastolako Lehendakaria

Eta horretan saiatu gara urte osoan zehar. Hiru ardatzen inguruan egituratu dugu gure lana: Ikastolek euskarari eta euskal kulturari egin dioten ekarpena nabarmentzea; gure komunitatea trinkotzea; eta ikastoaren 60 urteko ibilbide honetan, bidelagun izan ditugunei aitortzea egitea. Zalantzarik gabe, une egokia da atzera begiratu eta izan garena ezagutu eta gogoratzeko, gaur egun garenaz jabetzeko eta etorkizunean izan nahi duguna irudikatzen.

Kilometroak jaiak ikastoletarako diru baliabideak eskuratzea ere badu helburu. Aurten, baliabide horiek erabili nahi ditugu, batetik, Iparraldeko hainbat ikastolarekin dugun Zubiak Eraikiz hitzarmena indartzeko; bestetik, herriko eragileekin elkarlanean, euskararen inguruko proiektu bat pentsatu eta garatzeko; eta azkenik, Añabitarteko eremua birmoldatzeko.

Azaroaren 4an izan genuen aurkezpen ekitaldia; ordurako erabakita genituen logoa eta leloa. Eta txukunduta, Erriola denda izango zena. Orduz geroztik, hitzordu ugari izan ditugu: aurkezpen ekitaldia bera; dendaren irekiera; Kilometroak txikia; Egunkariaren itxieraren 20. urteurrena gogoratzeko astea eta hura amaitzeko, Jon Mayaren Kantu bat gara kontzertua, Egunkaria auziko inputatuak bertan zirela; Lilatoia eta MoreretaON; Batasunaren bidea, Euskaltzaindiarekin eta Euskal Herri osoko ikastoletako ikasleekin batera; abestia aukeratzea eta grabatzea; 12 orduz Erriolan herriko eragileentzako plaza; Adaxka berriak kontzertua, lehenengo Baionan eta ondoren Musikasteren barruan; Ikastolaren Eguna eta ikasle eta familien koreografia; komiki lehiaketa eta liburu ibiltaria; bideokliparen grabaketa; Urmuga ekimenari lotuta, "Gure Añabitarte" kontzertua;

herriko jaietan Erriola guneko afariak eta kontzertuak,...Eta oraindik gutxi batzuk ere gelditzen zaizkigu... Herri bizia dugu Erreterria-Orereta eta hori urte osoan zehar nabaritu da.

Une berezi asko bizi izan ditugu, horietako asko, zinez hunkigarriak, erraz ahaztuko ez ditugun horietakoak. Oso polita izaten ari da ikastolaren historian hainbesteko eragina izan duten pertsonekin berriro elkartzea; Ereintzak Santa Ageda bezperako kopletan ikastolari aitortza egitea; ikasleek Egunkariaren itxieraren inguruan egin duten lana errotatibatik irtetzen ikustea eta familia guztien etxeetara iristea, Egunkari zaharraren formatu berean; Euskal Herri osoko ikasleak elkarri eskua emanda ikustea; euskaltzainak gure geletara sartzeko eta ikasleei zer lan egiten duten azaltzea; 12 orduz Erriolan jaialdiaren amaieran, Janus Lesterrek, estrainekoz, Erriola abestia zuzenean jotzea eta, bezperan aurkeztu bazen ere, ikasle guztiek ordurako letra ikasi eta gogoz kantatzea; Hendaia eta Ziburuko ikasleak eta Orereta Ikastolakoak Pirritx, Porrotx eta Marimototsen Baionako emanaldian elkarrekin parte hartzea; herriko kale eta bazterretan, nonahi eta noiznahi, Erriola kamisetak ikustea...

Hori guztia ezinezkoa izango litzateke, ordea, Ikastolako langileek eta familiek lagundu izan ez balute. Linoko eraikina, inoiz baino biziagoa izan da aurten. Ikastolako txikienak atera ostean, gurasoek, langileek eta ikasle ohiek bete dituzte ikasgelak, egunak joan, egunak etorri, erabateko eskuzabaltasunez. Horiekin batera, ezin dugu ahantzi herriko eragileen laguntza. Ikastolak, hasiera-hasieratik, auzolanean egin du aurrera, eta, oraingoan ere, halaxe ari da. Urtea amaituko da, baina



altxor hori geldituko zaigu: ikastolako familien eta langileen inplikazioa eta konpromisoa, ikasleen irribarrea eta ilusioa, herriko hainbat eta hainbat eragileren babesa eta laguntza. Esker oneko hitzak besterik ez ditugu guzti-guztientzat.

Urriaren 1a hurbiltzen ari da. Egun horretan emango diogu bukaera 2023ko Kilometroei. Gogoz ari gara eguna prestatzen, herritarrei eta kanpotik guregana

hurbilduko zaretenoi egunaz gozatzeko askotariko eskaintza egiteko, beti ere, euskara eta euskal kultura erdian jarrita eta herriko eragileen eta ikastola osatzen dugun guztion laguntzaz. Lanak aurreratuta ditugu, besoak zabalik hartuko zaituztegu guztiak. Jare Antzitar ikasleak Ibarra lekukoa hartzerakoan abestu zuen bezala, "Errenterian, Kilometroetan, egin zaidazu bisita".

gertu INPRESIClanak

inprimategia



ALDIZKARIAK



LIBURUAK eta KATALOGOAK



AGENDA eta EGUTEGIAK



KMK Txikia, hasiera beroa

Urriaren 1ean izango du hitzordu nagusia 2023ko Kilometroak-ek, baina ez bakarra. Erriak itsasora nola, bidea eginez eta emaria handituz iritsiko da urriko hitzordura Kilometroak jaia. Hain zuzen, urtarrilaren 28an hasi zuen ibilia aurtengo Kilometroak-ek, KMK Txikia jaiarekin.

Negu betean, larunbat hotz eta goibela zena berotu eta argitu zuen KMK Txikiak haur, gazte eta helduen parte hartzearekin. Erriaren inguruak hartuta, ekintzaz eta jolasez beteta, Erriolak topaleku bihurtu zituen Oiartzun ibaiaren bazterrak. Ikastolako komunitateak ez ezik, herritarrek ere parte hartu zuten arratsalde osoz luzatu zen jaiaren.

Guztira, 400dik gora haur eta gazteek parte hartu zuten KMK Txikiaren kariatara antolatutako jolas eta jardueretan. Lehenik, erriaren bi gunetan bereizita; Gabierrotan haur eta gurasoak, Gernika plazan gaztetxoak. Jolasean hotzak uxatu ondoren, askariarekin indarrak hartu eta denak ala denak ibaiaren bueltan batu ziren, Lekuona parean, eguneko unerik hunkigarrienari tartea egiteko: erriko bazterrean bildutakoek, Hibaikako arraunlariek ibaiaren gora ekarritako Ama Euskararen laguntzarekin, erriari argia eman zioten. Une berezia, jaiaren azken zatiaren atari.

Izan ere, zirrarak leku egin zion jai giroari Linoko gunean. Kilometroak-i ongi etorria egiteko idazkia leitu ostean, ikastolako ikasleek jarritako musikak, ikastolako kideek prestatutako jan-edanak eta zezen suzkoaren korrikaldiek itxi zuten eguna, kalejirarik ere falta izan ez zuen festa xumean. Abiapuntu goxoa KMK Txikia, urte handiari hasiera emateko.



Lezoko
Unibertsitateko
Udala

LEZON

natural



‘Euskaldunon Egunkaria’-ren itxiera: oroimenetik geroa goldatzen

Aste osoko egitarua prestatu zen, otsailaren 20aren inguruan harilkatua, ‘Euskaldunon Egunkaria’-ren itxieraren 20. urtemugaren harira. Otsailaren 20an zen urtemuga. Biribila. Hogei urte bete ziren ‘Euskaldunon Egunkaria’ itxi zutela. Gertaera gogora ekartzeko, bost ekitaldi antolatu ditu Kilometroak 2023k; hilaren 20an hasi eta 24an amaitu ziren. BERRIA egunkariarekin batera prestatutako egitaraua izan zen: ‘Egunkariatik BERRIara, 20 urte’.

‘Erriola’ leloa ardatz hartuta, “komunitatea, euskara, eta errelatoaren bidez egindako eskertza” dira aurten Kilometroak 2023ren helburuak, eta xede horien barruan antolatu zen egitaraua. Otsailaren 20an bertan Imanol Murua Uri kazetaria EHUko irakasle eta ikertzailea izan zen Erreterian, ‘Egunero behar genuen’ liburua aurkezten: ‘Euskaldunon Egunkaria’ itxi eta BERRIA argitaratzen hasi bitartean kaleratu zen egunkariaren historia. Itxiera eta hurrengo egunean ja kalean egotea lortu zen, eta erabakigarria izen zen hortik aurrerako bidearen noranzkoa finkatzeko. Argi eta doi eman zituen argitalpenaren gaineko zehaztapenak, Lekuona Fabrikan, jendez betetako areto batean. “Hedabide baten itxierari hedabide baten irekierarekin erantzun genion”, azaldu zuen: “Katebegia izan zen, batez ere”.

Ororen gaintetik. ‘Egunero’ “bidegabea” izen operazio bati aurre egiteko era izan zen, eta urrats hark izan zuen garrantzia aintzakotzat hartuta, ‘Euskaldunon Egunkaria’-ren itxieraren eta eman zen erantzunaren inguruko informazioa jasotzen jardun zuten aurreko asteetan Orereta ikastolako ikasleek. DBHko 2. mailako eta Batxilergoko Oihartzoko ikasleek hartu zuten eginkizuna, hainbat irakaslek lagunduta, eta, bere tamainan mugarri izango zen beste hedabide bat plazaratu zuten ikasitakoaren berri emateko: ‘Egun oro’. 5.000 ale inguru zabaldu ziren, BERRIarekin elkarlanean. Errotatiban bertan jaso zuten ikasle gazteek egindako lana, pozik, eta han nola lan egiten den era ikusteko era ere izan zuten.

Ulertzeko eta gogoratzeko ‘Euskaldunon Egunkaria’-ren itxiera azaltzeko egin diren lanen artean nabarmenenetariko bat da ‘Paperezko hegoak’ dokumentala. 2021ko otsailean estreinatu zuten. Samara Velte eta Josu Martinezek egindako lana da. Itxiera eragin

zuen polizia operazioaren atzean zer egon zen ulertzeko gakoak ematen ditu. Dokumentazio lan oparoa agerikoa da dokumentalean, eta auzia ulertzeko pertsona esanguratsuen lekukotasunak jasotzen ditu. Otsailaren 22an ikusi ahal izan zen Erreterian, Niessen auditorioan, Ozzimena elkartearekin elkarlanean antolatutako emanaldi batean.

Hilaren 23an, herriko hiru tabernaren parean, Arkaitzan, Desiran eta Zuzenen, ‘Egunkaria’-ren itxieraren gaia landu zen era artistikoago eta sortzaileago batean: hiru era ezberdinetan. Axun Erzibengoa eta Arantxa Iraola ‘Euskaldunon Egunkaria’-n kazetari ari ziren itxi zutenean, ‘Egunero’ egunkarian ere jardun zuten gero. Garai hartako oroitzenak eta itxieraren gaineko gogoetak txirikordatu zituzten haien solasen bidez. Solasean egiten zituzten etenak Arkaitz Miner biolin-jotzaileak beteko ditu, entzundakoak aintzat hartuta, haiei erantzunez. Joxe Mari Karrera istorio kontalariarena izan zen beste proposamenetako bat. Ibai Maritxalar ilustratzailearekin batera jardun zuen. ‘Euskaldunon Egunkaria’ babesteko gizartean sortu zen mugimendua gogoratu zuten, besteak beste. Musikari birena izan zen hirugarren proposamena: Aitor Zorzanok eta Gema Ginesek eskaini zuten.

Otsailaren 24an, astea amaitze aldera, ‘Kantu bat gara’ ikuskizuna eskaini zuen Lekuona Fabrikan Jon Maia Soriak. Euskal kulturaren, historiaren eta identitatearen ikuspegi berezi bat bilatzen du aurkezten duen kantutegiarekin. Kontzertu honetan propio erreparatu ziren Kilometroak 23ren barruan jorratuko diren hainbat gairi, baita ‘Euskaldunon Egunkaria’-ren itxierari ere eta horrek izaera aski berezia eman zion emanaldiari, hunkigarria.



▶ Euskaratik eta euskaraz sorturiko softwarea

▶ Milaka familietan erabiltzen den komunikazio sistema

▶ Berrikuntza hezkuntza-teknologian

▶ Soluzio teknologiko aurreratuak





«Kazetaritza egitea: hori da gure funtzioa»

Amagoia Mujikak erredakzioko taupaden erritmoan egin du lan ibilbidea, eta, orain, arduraz hartu du zuzendari izateko «erronka». BERRIaren 20. urteurrenarekin batera dator aldaketa, egunkaria berritzeko ahalegin betean.



Amagoia MUJIKA
TOLARETXIPI
BERRIAko zuzendaria

Bat datoz BERRIaren 20. urtemuga eta zuzendari aldaketa. Bide batez, udazkenean aldaketak egin nahi dira produktuan, berrikuntzak. Zer da aldatu ezin dena? Zein da BERRIaren muina edota, areago ere egin ez, Euskaldunon Egunkaria-tik ere bazetorren zuztar hori?

Kazetaritza egitea: hori da gure funtzioa. Kazetaritza ahalik eta kalitatezkoena egitea. Horretarako, taldea behar da, hori badugu, eta hori zaindu behar da.

Aldaketa prozesu betean dago. Zergatik aldaketa horiek? Zer behar du gaurkoago izateko?

Iruditu zaigu 20. urtemugarekin inportantea dela jauzi handi bat egitea, aldi konplexu batean bizi garelako eta aldi konplexu honetan inoiz baino inportanteagoa delako kazetaritza egitea, ez edozein modutan egindako kazetaritza: jendearen kezkekin lerrokatuagoa egongo den kazetaritza bat, Euskal Herria eta mundua ulertzeko tresnak emango dituen, eta, horrez gain, begirada propio bat izango duena. Batez ere, kazetaritza fidagarria eta kalitatezkoa egin nahi dugu; hori egiteko euskarriak hobetuko ditugu, eta beste dinamika batzuk ere egingo ditugu.

Eraberritzea eginda, zertan ikusiko dituzte irakurleek aldaketarik nabarmenenak?

Berritzeko ahalegina edizio digitalean eta inprimatuan nabaritu du irakurleak; jauzi digitala esanguratsua izango da, webgunea eta aplikazioak eguneratuko baitira sareko irakurleari zerbitzu hobea emateko. Bestalde, diseinu aldaketa handi bat dator digitalean eta paperean; produktu argiago, arinago, irakurterrazago eta erabilgarriago bat eskainiko duen aldaketa integrala izango da.

Digitalizazioan zein da erronka?

Sareko erabiltzaileei zerbitzu hobea emango dien egunkari moderno bat egitea. Euskaldunok behar dugu egunkari moderno bat sarean, informazioa kontsultatu eta zabaltzeko. Horrez gain, irakurle berriengana heltzea ezinbestekoa da, eta produktu digital sendo batek baldintza hobek eskaintzen ditu horretarako.

Paperak zer toki izango du?

Aspaldi ari gara entzuten papera desagertuko dela, baina ikusten ari gara ez dela desagertzen. Eta, gainera, guk papera oso ondo egiten dakigu, eta paper irakurle oso finak ditugu, eta haiei esker gaude, hein handi batean, hemen. Guretzat inportantea da papera zaintzen jarraitzea. Orain dela bederatzita bat urte egin genuen ja aldaketa handi bat orain goazen bide horretatik: ez eguneko albisteak ematea bakarrik, baizik eta albiste horiek janztea, iritziak ematea, interpretatzea, igandetan gai bat hartu eta ondo lantzea... Bide hori sakontzera goaz. Eta diseinu berri batekin, hori hobetu ere egingo dugu.

Egingo diren aldaketetan, irakurleekin nolako interakzioa edukitzea izango da asmoa? Zer bide landuko dira horretarako?

Guretzat, komunitatea ezinbestekoa da; komunitate horri esker gaude hemen, eta komunitate horren babes ekonomikoak bermatzen du proiektuaren independentzia. Asmoa daukagu udazkenetik aurrera gure produktuei lotutako esperientziak, edukietan parte hartzeko bideak, ekitaldi bereziak... antolatzeko.

” Sortu dira berriak

Euskal kulturaren transmisioan kimu berriak sortu ditu Kilometroak 23k, euskal kantagintzaren ondarea gaztetxoenei erakutsita. Horretarako, Adaxka Berriak izeneko proiektua garatu zuen udaberrian, elkarlan aberasgarrian. Orereta Ikastolako 2. mailako ikasleek, Ziburuko Kaskarotenea Ikastolako eta Hendaiako Gure Ikastoletako hurrekin batera, euskal kantutegi tradizionalako 6 kanturen moldaketak landu eta ikasi zituzten, Landarbaso Abesbatzaren laguntzarekin.

Apirilaren 2an Baionako Lauga aretoan lehen emankizun txiki bat egin ostean, adaxka berriak Errenterian loratu ziren maiatzaren 20an. Egun horretan, Lekuona Fabrikan, lehendik mimoz prestatutako sei abestiak eskaini zituzten Musikaste jaialdiaren baitan antolatutako emanaldian. Ekimenean aritutako ikasleek gain, Herriko Arte Eskolako dantza eta musika ikasle eta irakasleak aritu ziren oholtzan, Thierry Biscary abeslariaren laguntzaz eta Maddalen Dorronsoro eta Jon Mayaren zuzendaritzapean.

Jendez lepo betetako aretoan, 90 haur inguru aritu ziren kantuan, eta abesten eta txaloka jarri zituzten bertaratutakoak, oholtzan gainean eskainitako abesti eta dantzen erritmoan. Ikasleek landutako Nere etchea, Iru xito, lili eder bat, Txakur txiki, Izarren hautsa eta Baratzeko pikuak abestiekin ez ezik, beste zenbait doinuaz gozatzeko aukera ere izan zen, Imanol Iribarren, Fabien Durou, Harkaitz Bastarrika eta Ander Zulaika musikarien eskutik.

Egitasmoa elkarlanaren emaitza izaki, aurtengo Herri Urratsen leloa ere gogora ekarri zuten une batean: Urratsak zubi. Izan ere, Herri Urratsek bezala, zubitik asko du Kilometroak jaiak, elkarrekin, zubirik zubi, Erriola eraikitzen ari baita ikastolako komunitatea, herritarrekin batera. Adaxka Berriak egitasmoak ere zubi lana egin du, abesti zaharrak belaunaldi berriei erakutsita.

Emanaldia amaitzeko, nola ez, Kilometroak 23ko Erriola izan zen protagonista: haur eta heldu, denok batu ziren Janus Lesterren kantua abestu eta dantzatzera, ikusleen txaloeekin lagunduta. Ikusleak eta oholtzako artista txiki eta handiak elkarlanean, finean horixe izan baita Adaxka Berriak egitasmoa.





14.000 esku, gorazarrerako

Batasunaren Bidean inizatibarekin, Orereta Ikastolak, Ikastolen Elkarteak eta Euskaltzaindiak euskara batuari gorazarre egin zioten martxoaren 24an.

Euskal Herri osotik etorritako 7.000 lagunek Orereta-Errenteriako Koldo Mitxelenaren omenezko eskultura eta Donostiako Plaza Berria batu zituzten, eskuz esku. Giza-katea hasi baino lehen euri tanta batzuek ekitaldia desitxuratzeko mehatxu egin zuten, baina ekitaldia errespetatu zuen.

Helburua euskara batuari gorazarre egiteaz gain, hizkuntzaren batasunak ahalbidetutako transmisioa ere eskertu zuten udaberriko lehen ostiralean.

50tik gora ikastoletako ikasleek kalean pasieran zeudenak ere animatu zituzten batzera; zahar eta gazte, errenteriarak eta kanpokoak, askotariko jatorrietakoak, guztiak eskuz esku euskararen bueltan. Nafarroa etorbideetik pasatzen ziren ibilgailuetako gidari batzuek ere bat egin zuten festarekin, klaxonekin agurtuz.

Giza-katea bukatzerakoan, 7.000 lagunak bost gunetan bildu ziren: Orereta- Errenterian eta Pasaian bana, eta gainontzeko hirurak Donostian. Ikasleek eurek antolatutako ekitaldia izan zen; denek ezaugarri komuna izan zuten: Janus Lesterren Dap dap abestiarekin TikTok bat egin zuten.

Eguerdian euskaltzainek ikastolako jangelan bazkaldu zuten, ikasleekin. Arratsaldean ekitaldi instituzionalaren txanda izan zen, Errenteriako udaletxean. Alkateak harrera egin zien euskaltzainei, eta euskara batuaren hainbat bultzatzaile omendu zituzten: Koldo Mitxelena, Resurreccion Maria Azkue, Pierre Broussain, Jose Maria Satrustegi, Julia Berrojalbiz, Xabier Kintana, Raimundo Olabide, Julene Azpeitia, Luis Villasante, Henrike Knorr, Arantxa Urretabizkaia, Arturo Campion, Gabriel Aresti, Jean-Louis Davant, eta Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegia.



GARBITU
INDUSTRIA GARBIKARIAK

► BIZKAIA 94 671 48 48

► GIPUZKOA 648 741 881



Euskararen Errioa

Kilometroak urtean zehar antolatu diren ekimen guztietan presente egon da Euskararen Errioa; euroka kilometroko errioa osatzeko erronka, hain justu.



Izan ere, nortasuna du erriok Orereta-Errenterian. Herriaren erdigunetik pasatzen delako, bizimoduaren erdigunean egon delako, erdiguneak sortu dituelako. Erriotik, herri. Horregatik, herrian euskara eta euskal kultura indartzeko proiektuetara bideratu nahi da Kilometroak festak eskaintzen digun aukera. Eta txanpon horiek guztiak euskararen sustapenerako egitasmoetarako bideratuko dira.

Kilometro batean euroko 50.000 txanpon sartzen dira, eta erronka euroak biltzea izaten ari da; ahalik eta errio luzeena egitea. Online, bizum bidez edo modu fisikoan egin daiteke ekarpema, eta dagoeneko gure ekimeneen beste laguntzaile baten gisan, egurrezko errioa eta haren osagarri diren hodi gardenezko ibaiadar mugikorrak ibili dira txoko guztietan.

Herritarrak, erakundeak nahiz elkarteak ari dira ekimenean parte hartzen, erronkari elkarrekin ekiteko eta elkarrekin lortzeko ilusioa piztuz. Tantzaz tanta osatzen ari da errioa, marearen aurrera-atzerako balantzaz, itsasorako bidean. Osa dezagun Euskararen Errioa ere modu berean, euroz euro, atzetik aurrera edo aurretik atzera, kilometroa osatu arte! Kiloeuro bat osa dezagun eurometroka!

Egizue ekarpema eta utzi mezu bat gure webgunean!



**KAMISETAK
SUDADERAK
POLTSAK
TXAPELAK**



LANERAKO ARROPA

Gainera: pegatinak, kartelak, lonak, erakuslehoiak, banderak...

📞 943 13 32 24

📍 Urdaneta Bidea, 7
Zarautz (Gipuzkoa)

🌐 zarautzserigrafia.com



99 Orduz ordu Erriolan

Agirre Lehendakariaren plaza Orereta Ikastolako hezkuntza komunitatearen parte diren, izan diren eta izango diren topaleku izan zen maiatzaren 6an, baina baita ere sekula izan ez direnena. Izan ere, hamabi orduko maratonia egin zuten plazan jarritako karpan, eguraldi politarekin. Sortzaileen izenez beteriko egitarau osoa ondu zuten antolatzaileek, eta bata bestearen atzetik, errioren ertzean eta herriko ola/fabrika handienaren parean, hurbildu ziren guztiek urriaren 1eko festa handirako aperitibo oparoarekin gozatu ahal izan zuten. Euskara hauspotzea, komunitatea indartzea eta sortzaileei plaza ematea izan zen egunaren helburu hirukoitza. Inguruan talentua badela erakutsi zuten egun osoan. Herriko eragileena nagusiki izan zen goiza, eta besteak beste, bertan izan ziren Lau Haizetarako kantu jira, Beti Presteko dantzariak, Herri Arte Eskolako ikasleak, Lur Korta ipuin kontalaria... Hola Zirkukoek talentua erakustez gain, akrobaziarako gaitasuna dutela

berretsi zuten. Ikastolako ikasleek osatutako musika taldeek, baita irakasleenak ere, egin zuten goiz eta arratsaldearen arteko zubi lana. Txosnetan etengabe aritu ziren lanean. Arratsaldean ere bai Erriola jarduera arragoa izan zen: dantza, magia, akrobazia, bertsoak, tailerrak, sevillanak... Ekitaldi maratoniaren azken herena elektronika doinuak izan zituen. Lawless Records eta Zilibito Recordsek beraien lana erakutsi zuten, eta Iker Rodriguez dj-ak musika pintxatu zuen oholtzatik, gorputzak astintzen jartzeko. Azkeneko emanaldia izan zen ikusmin handiena piztu zuena: Janus Lesterren kontzertua. Taldeak jarri die musika Jon Maiaren hitzei, aurtengo Kilometroak jaialdiko soinu banda osatzeko, eta orduan entzun zen lehen aldiz zuzenean, egun ederra biribiltzeko.

607 260 409
678 235 603

ERRETERIA
magoype10@gmail.com
pinturasmagoype.com

Pinturas
MAGOYPE
Marzoak

MODES Iturgintza

SAT Grupo SFA SANITRIT

sfamodes@live.com


 **615 753 763**

Avda. Zarautz, 25 - Donostia



arana

zerbitzu Grafikoak

 943516511

 aranagrafika@gmail.com



**OIARTZUNGO
UDALA**



*Jarrai dezagun Barsoaldea euskalduntzen.
Esaldi horri Udalaren logoa gehitu. mesedez.*



PASAIKO UDALA



Festa giro paregabea Beloaga gazteluan eta Añabitarteko zelaietan

Orereta ikastolak eta Urmugak egun berezia antolatu zuten uztailaren 19an, mendi ibilbideak eta musika uztartzen dituen Urmuga festibalaren 6. egunean.

Zubiak Eraikiz" ekimenak eta Urdaburu mendi taldeak antolatuta, Girizia mendi taldearen laguntzaz, bi mendi ibilaldi izan ziren goizean. Ostean, Albaola Itsas Kultur Faktoriaren eskutik, patatxa ontzia San Pedrotik irten zen Albaolako bertako eta Hibaika Arraun Elkarteko kideek eramanda. Lekuona Fabrikaraino iritsi zen, eta

errio gaineko kontzertua eskaini zuten Arrabiten Zurdetan taldeko kideek, Arkaitz Miner musikariak eta bere taldekideek. Arratsaldean, berriz, "Gure Añabitarte" kontzertua antolatu zen Orereta Ikastolaren Añabitarteko zelaietan, Ikastolak baserria eta lur horiek erosi zituela 50. urte bete direla ospatzeko. Alaitz eta Mainer, Alex Sardui, Janus Lester, Olaia Inziarte, Xutik, Aire Ahizpak, Et Incarnatus Orkestra eta Arkaitz Minerren musikaz gozatu ahal izan zuten famili, ikasle ohi, haur, gazte eta helduek. Ondoren, erromeria izan zen, Iratzar taldearen eskutik Baserriaren pareko zelaietan. Egun paregabe eta ahaztezina.


osarten
kooperatiba elkartea

SEGURTASUNA, OSASUNA ETA ONGIZATEA

Jose Maria Arizmendiarieta Pasealekua, 1,
20500 ARRASATE (Gipuzkoa)


osarten@osarten.com
943 79 00 90 www.osarten.com

Erriola

Errioak daraman urak Oreretako baserriko baratzak ureztatu ditu; baita errioren bazterrean sortu eta lan egin eta egiten duten olak edo fabrikak. Urbanoa eta ez urbanoa, Manchester txiki eta baserria, Orereta-Errenteria lotzen dituen bi errealitateak dira.

Gure errioren inguruan, garai batean fabrikek erabiltzen zuten zoruetan plazak sortu dira egun. Eta plaza hauek euskararen arnas-gune bilakatu dira, baita gune hartzaile ere.

Errioa mugimendua da, eta leloaren ikur bilakatu diren sokek irudikatzen dute fluxua, goitik beherako eta alde batetik besterako higidura. Sokak eta sareak izango dira protagonista errioren buletan, baita totem erraldoietan zintzilik, gune ezberdinak identifikatuko dituzten andamioetan, izaera industrialari keinu eginez. Sokek irudikatzen dute lotura, komunitatea; partehartzea. Eta herritarren eskulanari eta sorkuntzari esker, egunean zehar eraldatzen joango dira egitura horiek, mareen gisara.



Lino

Lehendakari Agirre plaza

1845.urtean hasi zen herriko industrializazioaren aroa, Errenteria-Oreretako lehen fabrika modernoarekin: La Sociedad de Tejidos de Lino, "Fabrika Handia" gisa ezagutua. Egungo Agirre Lehendakaria plazan zegoen kokatuta, **ikastolaren Linoko egoitza** dagoen lekuan hain zuzen. 1850. urterako 500 langile zituen, "telariak", asko emakumeak, eta horietako bat izan zen gerora Joxepa Antoni Aranberri 'Xenpelar', baita bertsolari familia honetako beste hainbat kide ere. Linon izango ditugu herriko artisauak eta sortzaile berriak. Euren lanak erakutsi eta saltzeaz gain, tailer ezberdinak ere eskainiko dira.



Esmalteria

Koldo Mitxelena plaza

1925ean sortu zen **Esmalteria Guipuzcoana** eta esmalteztatutako ontziak egiten zituzten, batez ere sukalde eta komunerako tresnak. Bertako langileen %70 emakumeak ziren eta 90.hamarkadara arte iraun zuen egungo Koldo Mitxelena plazan, horregatik herrian askok Esmalteria plaza deitzen diote. Eta bertan dago baita ere **Orereta ikastolaren Haur Hezkuntzako** eraikina.

Esmalteek eta margoek hartuko dute berriro protagonismoa gune honetan urriaren 1ean.



Galletera

Gernika Plaza

Auzoari izena ematen dion Olibet fabrika frantsesean egiten ziren galletak txoko guztietan egin ziren ezagun. Maria galletak egiten hasi zen enpresak 1886an zabaldu zituen ateak, "La Iberica. Fabrica de galletas": herrira bainila eta gurin usaina ekarriz.

Gaur egungo Gernika plazan, Galletas Olibet lantegia zegoen orubearen zati batean ireki zen beranduago Lekuona okindegia. Eta ondoan dago baita ere martxan jarraitzen duen herriko fabrika historiko bakarra: Papelera.

Jo eta fuego, musika usaina darion labea izango da Galletera. Talde ezagun eta hasi berriak izango dira oholtza gainean, gune indartsu eta bizia, milaka lagun bilduko dituen eremua.



Errioa

Errioa da, ez ibaia. Itsasoaren gertutasunak fenomeno natural propio bihurtzen du. Kostalde-kostaldean ez egonagatik, mareak gora eta behera egiten du, urak bi noranzko ditu; gorabeherak izaten ditu, ez du beti aldarte bera; ur gaziak eta gezak bat egiten dute, elkar hartzen dute. Eta errioa da gure herria zeharkatzen duen eta gure leloan protagonismo berezia hartu duen elementua. Bi urertz batzen ditu; zubiak sortzen ditu; faktorien kokaleku da eta izan da urteetan zehar, jardueren eta sormenaren hazi. Bertan izango dute gozatzeko aukera haurrek, puzgarri, txirrindularitza pista eta pailazoekin besteak beste. Tai Chi saio batekin hasiko da eguna errioaren energia hartuz eta Goazenen kontzertuarekin agortzeraino.

Gune nagusiez harago, jende mareak ibiliko dira herrian zehar animazioak lagunduta ekitaldi batetik bestera. Eta ondorioz, azpiguneetan ere hitzordu andana izango dira, besteak beste, "Zamalbide", Alhondiga eta Haurren Erriola galduezineko guneak izango dira.

Garai batean Panier Fleuri jatetxea zegoen eta gaur egun autoen aparkalekua den lekua hustu, eta Haurren Errioa sortuko dugu, haurrek berek diseinatutako gunea hain zuzen. Bertan, egun osoan zehar tailer ezberdinak izango

dituzte gunea apaindu eta atontzeko, antzerkiak egiteko, txontxongiloak... Musika, DJ bat eta aurpegiak margotzeko eta eskulanak egiteko tailerrak ere ez dira faltako. **Alhondiga** erronkan parte hartuko duten gazteen jangela bilakatuko da besteak beste; indarberritzeko eta harremantzeko lekua.

Eta azkenik, **Zamalbide** guneak landa eremura eramango gaitu, egitarau lasaiago bat eskainiz.

Herrian bertan sortu zen Orereta ikastola 1963an, baina Zamalbideko Añabitarte baserriaren inguruan kokatu zuen nagusiki bere euskal hezkuntzaren jardura nagusia 1973tik aurrera. Añabitarte baserriak eta Zamalbide auzoak garrantzi handia izan dute Orereta-Errenterriaren historian; Añarbeko burdinola famatua eta hirigunearen artean kokatzen baita Añabitarte baserria. Añarben ekoizten ziren produktuak herrira, portura, itsasora, mundura eramateko auzotik barrena garraitzen baitziren. Horixe, auzoari jarritako izena, "Zamalbide", eta noski, Kilometroak festan falta ezin zuen izena eta izana.

Egun, Añabitarte baserria lau horma baino askoz gehiago da. Orereta Ikastolaren komunitatearen elkargunea da, garena egiten gaituenaren sinboloa.

Lino

Lehendakari Agirre plaza

ESTI ETA
MIKEL MARKEZ

11:00



MAKRAME TAILERRA

GOZATEGI 13:15



dj.bull

15:45

ARTISAU
AZOKA +
ESKULAN
TAILERRAK

10:00 - 18:00

EROSKI ELIKAGAI
TAILER
ETA LUDOTEKA

BATUKADA
FEMINISTA

11:00



AMATERRA

11:15



PALEOLITIKOAREN
INGURUKO
TAILERRA
(ARANZADI
ZIENTZIA
ELKARTEA

BERRIA:
IPUIN
KONTALARIA



BERTSO SAIOA
(XENPELAR
BERTSO ESKOLA)



EMAKUMEEN
HERRI KIROL
ERAKUSTALDIA

Esmalteria

Koldo Mitxelena plaza

ERRALDOIAK

12:00

AKERBELTZ

XV URTE

ITHAKA

14:30



JANUS LESTER

16:45



GRAFFITI eta
ARTE PLASTIKOEN
TAILERRAK

HERRI



KIROLAK

ANDONI
OLLOKIEGI

16:30



Galletera

Gernika plaza

IREKIERA

10:00

WILLIS DRUMMOND

11:30



13:00



**ZILIBITO
RECORDS®**

14:30

TRILITA

16:00



DUPLA

16:00



Errioa



TAI CHI

11:00

HOLA ZIRKUA: AKROBAZIAK

12:30

PILAZOAK

15:00



17:00

PUZGARRIAK Laboral Kutxa

Reala TXOKOA

Euskaltel BIZIKLETA IBILBIDEA

TAILERRAK eta GUNEAREN APAINKETA



BIHOTZ URDINA, HAURREK SORTUTAKO ANTZERKIAK, AURPEGIAK MARGOTZEKO TAILERRAK, ROKODROMOA



DJ KAKTUS



Txistulariak
 Batukada Feminista
 Joareak Muxikoak Banda
 Ikastolako txarangila Rokodromoa
 Elektrotxaranga (Matrakan)
 Ur jolasak Dultzainak Trikitilariak
 Ereintza dantza taldea
 Photocall
 Erraldoiak



MUSIKA

kilometroak

erriola

2023 ORERETA-ERRETERIA

ESTI ETA MIKEL MARKEZ 11:00

GOZATEGI 13:15

Dj BULL 15:45

Lino

Lehendakari Agirre plaza

ZAMALBIDE

11:15 AMATERRA

15:30 XENPELAR BERTSO ESKOLA
+ ALBIZTURTARRAK

Galletera

Gernika aretoa

11:30 WILLIS DRUMMOND

13:00 QUINTO CONTENEDOR

14:30 ZILIBITO RECORDS

16:00 TRILITA

18:00 DUPLA

AKERBELTZ ERROMERIA 12:00

ITHAKA 14:30

JANUS LESTER 16:45

Esmalteria

Koldo Mitxelena plaza

ALHONDIGA

16:30 ANDONI OLLOKIEGI



- P1 PARKING Pasai Portua
- P2 LURRALDE BUS BUS Geltokia
- P3 PARKING Txirrita Maleo
- P4 PARKING Agustinak
- JANTOKIA Fernandez Landa
- Anbulategia
- Perimetroa



Euskara bizi dugulako



Elkartasuna, kultura, hezkuntza,
zientzia, ingurumena, aisia...

Era guztietako adierazpenak
euskaraz bultzatzea gure
gizarte-konpromisoaren parte delako.

Urriak 1. Errenteria





Zer da Kilometroak ikasleontzat?

Zer ote da ikasle gazteontzat Kilometroak? Ulertzen al dugu Kilometrotako festak atzean gordeta duen guztia?

Helduek askotan pentsatzen dute ez garela gertatzen denaz ohartzeko, eta guretzat beste festa bat besterik ez dela, baina ez da hala. Ikasle askori Kilometroak haientzat zer den galdetzean hainbat hitz etortzen zaizkie burura, eta ez dira denak uste bezain "negatiboak" edo soilik festazaleak. Ikasle askok diote Kilometroak euskararekin, ikastolarekin, ikastolako parte izateko sentimendurekin, laguntasunarekin eta elkartasunarekin lotzen dutela; aske izateko egun bat, zu zeu zaren bezala azaltzeko egun bat. Nahiz eta urtean behin izan, eta nahiz eta askotan ohartu ez, festa edo normalean ospakizun gisa ikusten dugun egun horrek herri, ikastola eta pertsona asko batzen ditu, giro erosoan, norbera bere kulturarekiko harro, parte bizi senti daitekeen espazio batean.

Egun horrek zenbait gauza islatzen ditu, eta gure ustez garrantzitsuenak hauexek dira: elkarlana, ikastolok elkarrekin lan egitea, guraso, irakasle eta ikasle guztien esfortzua, gure kultura defendatzeko ahalegina, nahia eta gogo bizia. Kilometroak ez da soilik festa eta parranda egiteko egun bat, eta gazteok badakigu hori!

elkarlana, ikastolok elkarrekin lan egitea, guraso, irakasle eta ikasle guztien esfortzua, gure kultura defendatzeko ahalegina, nahia eta gogo bizia.



Ongi etorri herrira

Orain kantatzen hasiko gara
joan gaitezen harira
Kilometroak gu denentzako
festa hoberenak dira
Janus lesterren taldea jotzen
herria dago begira
ta Erriola esaterakoan
begitan dute dizdira
Kilometroak hogeita hiru
ongi etorri herrira.



DBH4. mailako ikasleak eta KILOMETROAK

Urtero legez, iritsi da etaparen amaiera gure DBH4. mailako ikasleentzat. Hainbat urtetan elkarrekin egin duten ibilbidea amaitzean dago eta nahiz eta askok elkarrekin jarraituko duten Oiarzonen, gure ikastolan, jada ez dira guztiak egongo, hainbatek bestelako bideari ekingo baitio. Egoera hori izanda, orrialde hauek eskaini nahi izan dizkiegu KILOMETROAK beraiantzat zer den azal diezaguten, horretarako nahi izan duten euskarria, baliabidea... erabilia. Gogoeta horren emaitza da segidan duzuenak. **Bejondeizuela, gazteak! AURRERA!**

Jada kilometroak heldu dira eta
horrekin festa eta alaitasuna. Goazen
denok kalera,
dantzatzera eta abestera!

Goazen denok batera
euskara bultzatzera.
Azkenean den-denak
euskaldunak gara.

Mendira musikarekin,
baita ibaian ere.
Gero baserrira,
denok abestera.

Ez du axola nolakoa zaren
ez generoa, ez izaera
bakarrik behar dena
euskaldun arima da.

Beraz, goazen denak
kalera, mendira eta herrira
Garrasi eginez
Erriola!



Kilometroak elkarlanean aritzeko ekintza da.
Kilometroak gure artean euskaraz hitz egiteko ekintza da. Ikasleontzat, herrian
laguntzeko aitzakia on bat da.
Gure herria garrantzitsua bihurtzen den urtea da.
Beste behin ere, Errenteriakoa izateagatik harro sentitzen gara. Mundu guztia dator
herrira
Kilometroak jende berria ezagutzeko ekintza da.
Kilometroak harro sentiarazten gaituen ekintza da.
Lan gogorra bururatu eta ekin genuen,
1977tik ekintzak sustatuz euskararen alde.
Bidaia halakoa hasi genuenetik
Orain Errenterian presente.
Hasieratik euskararen alde borrokatu zuteneztat
bada berri zoragarria Kilometroen ekimena.
2023an berriro ospatzen
Erriola gara, Erriola izango gara.

” Lantaldeen eraketa: Urte osoko lan eskerga



Batzorde iraunkorra: Ekintza guztien koordinazioa da xedea, eta horretarako, batzorde bakoitzaren buruek osatzen dute taldea koordinatzaileen gidaritzapean. Kilometroak dituen helburuak betetzen direla ziurtatu eta diseinatzen diren ekintzak ildo horretan doazela bermatzen da. Jarraipen eta balorazioak egin eta batzorde guztiak elkartzeko puntua da, baita elkarri babesa emateko gunea ere.

Trafikoa: segurtasun eta trafiko batzordean 17 lagun daude. Ekitaldi ezberdinen beharren arabera biltzen dira eta trafikoa kudeatzea eta segurtasuna bermatzea da eginbehar nagusia, baina ez bakarra. Urriaren 1era begira lan potoloa dute aurretik, izan ere, trafikoaren diseinua egiteaz gain, aparkalekuak kudeatu, baimenak eskatu, Udal eta Segurtasun Sailarekin koordinatu, boluntarioei ardurak zehaztu eta seinalitika ere prestatzen dute.

Muntaia batzordea 13 lagunek osatzen dute, nahiz eta ekintzaren bat dagoen egunetarako beste pertsona batzuen laguntza ere jasotzen den. Elektrizitatea eta iturgintza lotzeaz gain, beharrezko materiala behar den guneetara eramatea eta muntatzea da zeregin nagusia. Eta noski, ekintza bukatzean, desmuntaiaren txanda iristen da.

Komunikazioa: Kilometroak Orereta ikastolak antolatuko dituela erabakitzen den une berean, komunikazio ildoak finkatu behar dira. Hasieratik ezinbesteko funtzioa betetzen du batzorde honek, Kilometroak osatzen duten ekimen guztiak gorpuzten baitira komunikazio plan baten baitan. Lan talde oso zabala da, esparru asko hartzen dituelako, 25 lagun inguruk osatzen dute, eta hainbat azpibatzeretan banatzen da: webgunea, sare sozialak, diseinua, barne komunikazioa, protokoloa, testu sorkuntza, prensa gabinetea, komunikazio estrategia, ikus-entzunecko sorkuntza eta gidoigintza.

JASANGARRITASUNA: Batzorde honen lan nagusia jaiak ingurugiroan ahalik eta eragin gutxienean izan dezan bermatzea da. Horregatik, gaur egun oso barneratuta dauden zenbait irizpide betetzen direla ziurtatzen du batzorde honek, hala nola, ahalik eta hondakin gutxieng sortuko dela bermatzea. Boskote batek koordinatzen du batzordea eta Kilometroak egunaren harira, hondakinen kudeaketarako baliabide egokiak egongo direla ziurtatzen dihardute, herria garbi mantendu eta hondakinak modu egokian kudeatzeko.

Inklusio taldea ere azpitaldeetan banatuta dago; beste batzordeetako beharrak aztertu eta beste ikuspegi bat emateko asmoz. Egiten diren ekintzetan behar zein gaitasunetara egokitze baliabideak bilatzen dituzte. Halaber, komunitateko elkarteekin harremanetan jartzen dira, elkarlanean ekimenak aurrera atera ahal izateko.

Ikuskizunak: kmk23 antolatzeko ikuskizun batzordeak 30 bat pertsonaz eta 3 arduradunetz osatutako lantaldea du. Pertsona hauek espezialitateka banatu dira azpitalde eragileak sortuz, hala nola, haurren taldea, musika taldea, gazte taldea edota kirol taldea. Horrela, urte osoan zehar izan diren ekimenetan azpitalde bakoitzeko arduradunak partaide izan dira beren taldeko ideiak txertatuz eta lanak banatuz. Ikuskizun Batzordearen zeregin nagusia antolatu den ekimen bakoitzean gertatzen dena diseinatzea, hornitzea eta koordinatzea da.

Gastronomia batzordea 8 pertsonek osatzen dute; sukaldaritza eta ostalaritza munduan ibiltzen diren pertsona anitzek hain zuzen. Ekimenetako beharrak aztertu eta publiko ezberdinentzat eskaintza egokiena aukeratu eta aurrera eramatea da euren lana. Kilometroak txikian 400 barazki tako eskaintzen hasi zuten ibilbidea eta pixkana, taldea handitzen joan da erronka handiagoei erantzun ahal izateko. Kilometroak egunean, hiru gune nagusietan bokadiloak eta edariak eskaintzeaz gainera, jantokian



700 pertsonentzat paella eta oilaskoa emateko prest daude jada.

Ekonomia: 5 taldetan banatuta, 20 lagun inguruk osatzen dute. Xedea, argia; diru-bilketa. Ibilbide osoaren helmuga begi bistan, egoera desberdinei aurre egiteko ikuspuntua tantaka kudeatzea. Beste alde batetik, irudimena erabiliaz eta tonbolaren soinu hotsez, diru-iturri berrien arrantzan ibiltzea. Eta azkenik, abentura horretan borondatezko bidaikideak topatu eta txanponez txanpon euskararen errioren poltsikoratzea. Tonbola, Tanta, Euskararen Errioa eta Publizitate eta Promozio taldeko kideek osatzen dute batzordea.

Auzolana-zaintza: 7 pertsonak osatzen dute, lau langilek eta hiru gurasok. Batzordearen helburua boluntarioen kaptazioa eta kudeaketa da, hola nola, urte guztian zehar eta baita urriaren 1ean lanean arituko direnen zaintzari arreta jarritz. Ekimen ezberdinen antolaketarako sortzen diren beharrak

aztertu, zerrendatu eta horiek gauzatzeko behar diren pertsonekin harremanetan sartzten dira.

ARROPA: Batzorde jendetsuena da eta hainbat azpibatzeretan dago banatuta. Erosketa batzordea hasi zen lehendabizi lanean, diseinuak prestatzen eta arropa aukeratzen. Aldi berean, denda fisikoa irekitzeko beste lantalde bat aritu zen lokaleko lanak egiten, denda atondu eta azaroaren 4an atek zabaltzeko. Arropa iritsi zenean, etiketatze taldea sartu zen buru belarri, 50 pertsona inguru. Eta ostean, saltzaileak...60 inguru, txandaka salmahaiaren bueltan, eta poltsak prestatzen ere aritzen dira beste hainbeste lagun. Online dendak ere badu bere azpibatzerdea: argazkiak egin eta webgunea prestatzeaz arduratzen dira. Azkenik, irteeren azpibatzerdeak antolatzen ditu astebururo herriz herri dabilzanen irteerak: bolondresen bila ibili, baimenak eskatu, herrietako harremanak egin, baldintzak zehaztu etab.





Arropa batzordea, probintzia Erriolaz janzten



Erriolaren komunitatea osatzen duten hainbat batzorderen artean, arropa batzordea izango da jendetsuenetakoa eta bere ibilbidea batzorde guztien artean goiztiarren hasi zuenetako bat. “Erriola” leloa 2022ko maiatza erdikaldeen sortu bazen ere, aste gutxiren buruan hainbat filtro eta oniritzi pasa eta leloa hura izango zela ofizialki baieztatu ostean, arropa batzordea ekainerako modu batean edo bestean martxan hasia zen. Batzordekideen hitzetan igartzen da 2022koa klimatologiaz haragoko uda “beroa” izan zela eta ekaina-uztaila- abuztua baliatu zituzten erosi beharreko arropen zerrenda egiten hasteko. Helburua, ibilbide luze baterako estrategia markatu eta bidean bideko ñabardurekin, pausoka pausoka aurrera egitea zen.

LEHEN GELTOKIA: DENDA FISIKOA

Udatik bueltatu eta lehen eskaerak arropa biltegetara euren bidea egin zuten bitartean, arropa batzordeari udaletxe ondoko egoitza atontzea egokitu zitzaion. Hala, guraso, ikastolako langile zein bolondres ugariren eskutik dendari estetika zehatz bat emateari ekin zioten, erakargarritasuna eta praktikotasuna uztartuko zituena. Iazko urriaren bukaera alderako lehenengo arropa oldea txukundu eta prestatua zegoen, aurkezpen ekitaldia azaroaren 4ean ospatu eta inauguraziora jende andana hurbildu zelarik.

Denda herriaren erdigunean kokatzen denez, joan-etorri askoren testigu da eskaparatea eta hilabete guzti hauetan kristalaren beste aldeko espazioa eta produktuak maiz aldatu dituzte eta oso gune bizia da egunerokotasunean.

ESENTZIA ETA PRESENTZIA

Hilabetean behin elkartzen dira arropa batzordeko hamabi pertsonak, azpibatzoak koordinatzeko xedearekin. Arropa batzordearen esentzia eta funtziorik nagusia arlo ekonomikoaren ekarpenean kokatu dezakegun arren, ez da bakarra. Erriola eta Kilometroak festaren “marka” herrialde guztira zabaltzeaz arduraduratsun da batzordea eta horretarako, denda ibiltaria ezinbestekoa suertatzen da. Arroparen salmentarekin ateratzen den diru kopuruaz harago, formatu berriarekin urte osoko Kilometroak jaia “gertatzen ari da” edo aurtengo Kilometroak non eta noiz izango direnaren aldarria zabaltzea du xede denda ibiltariak.

ERRIOLA, JALGI HADI PLAZARA!

Arropa batzordearen funtzio konplexuenetakoa izaten da denda ibiltariaren ibilbide-orrria koordinatzearena. Edozein herritako plazan postutxo bat jartzeko, aurretik lan handia egin behar izaten dute bertako kideek eta itxuraz gauza ximplea dirudien horrek, bere buruhausteak izaten ditu.

Lehenengo pausu gisa eta denboraz, probintzia mailako kultura zein kirol ekitaldien zerrenda luze baten egituraketan murgiltzean datza, festak eta ospakizunak identifikatu eta luzera begirako planning zehatz bat gauzatzeko asmoz. Jende multzo handi xamarrek bilduko diren ospakizunak izatea komeni da, proportzionalki eta teoriarik behintzat, salmentarako aukerak biderkatu egingo direlako horrela.

Erreferentzia batzuk ere izan dituzte planifikazio hau egiteko orduan. Aurreko urteetako Kilometroaren postu batzuek non eta zenbat saldu zutenaren datuak izan



dituzte uneoro esku artean, nahiz eta gero arrazoi jakinik gabe, pronostiko horiek batzuetan bete eta zenbaitetan bete ez diren arren. Bestalde, urteko garairik mugituenak udaberria eta uda hasiera izan dira, ekitaldi kultural gehien pilatzen diren garaia delako, kurtso amaierarekin batera.

Burokrazia oro har nahiko lan astuna suertatzen denez, irteeren azpibatzaordeak hartzen du lanik gehien horretan, baimenak eskatu eta lehenengo tramiteak egiterako orduan. Une honetan, irtenaldiari buruzko informazioak ahalik eta gehien bilatzea komeni izaten da, irteeraren orduan arazorik ez egoteko eta bolondresen lana soilik horretara mugatu dadin, saltzera.

Dena den, Kilometroak marka ezaguna eta kuttuna da eta udaletxe zein administrazioetatik erraztasunak jarri izan dizkiete gehienetan, batzordekideen hitzetan. Anekdotak moduan, hain konfidantzazko hartu-emana izan da normalean non herri txikietan bertako alkatearen telefono zenbaki pribatua bera ere eskuan izatera iritsi diren, arazoren bat balego edo. Behin baiezkoa edukitakoan, planifikazioa xehetu, zer eta nola eraman behar den pentsatu eta poltsak prestatu eta boluntarioak bilatzeko lana dator hurrena. Irteeren esleipenarekin eta irteera berarekin itxiko litzateke prozesua.

Inor aspertzeko asmorik gabe eta arropa batzordearen aktibitatea neurtzeko orduan, zenbaki batzuk hemen: Pasa den abendutik aurtengo urrira bitartean, 200 baimen eskaera inguru egin eta haietatik 180-190 irteera gauzatzea espero da. 2023ko ekaina honetarako 150 baimen eskaera eginda eta haietatik, 132 jada gauzatuak ziren hainbat herri eta jai

bilgune handietan. Amaitzean den udan zehar, denda ibiltariaren erritmoa zertxobait jaitsi bada ere, tantaka tantaka Erriolaren kolore eta salmenta postuek Gipuzkoako hainbat txoko ziprizzintzen jarraitu dituzte.

ON LINE, 24 ORDUZ ZABALIK

Azkenik, denda fisikoaz eta ibiltariak gain, salmentaren hirugarren oina interneten dauka arropa batzordeak. On line denda honetan, zortzi pertsonak egiten dute lan modu iraunkorrean eta gehienetan erritmoa pausatuagoa den arren, badituzte boladak salmentak azkartu eta gehitu egiten direnak.

Adibidez, denda ibiltaria aurretik egon den herrian, badirudi handik egun gutxi batzuetara herri bereko eskariak gorakada bat izaten dutela, duda mudan gelditu den hark internetez gauzatzen duelarik erosketa beranduxeago bada ere.

Orain arteko ibildean oro har, arroparik arakastatsuenak uda giroko kamixeta frexko eta koloretsuak suertatu dira, agian bere diseinu alaiagoagatik gehien saldu direnak mauka motzekoak izateraino. Neguan ere, zirak, lepoko zapiak edo berokiek euren arakastatxoa pairatu dute eta normalean eta konstantzia baten barruan, jertseak eta kirol-jertseak ere ederki saldu dira.

Amaitzeko, arropa batzordekoek guraso, ikastolako langile, irakasle, ikasle ohi eta batzordeetan parte hartu duen jendetza eskertu nahi izan dute; haien laguntzarik gabe arropen salmenta aurrera eramatea gaitzago zatekeelako.



Dendaren diseinua, arte lan partehartzaile bat

Erriolaren xedeetako bat ikastolako komunitateari keinu egin eta hura indartzea dela gauza jakina da. Eta ildo horretan, denda fisikoak garrantzia handia izan duela azpimarratu beharrean gaude, komunitatearen hainbat arlo eta ehundaka pertsona lotu dituelako ekimen baten bueltan.

Dendaren diseinuan, Lide Gabarain ikastolako guraso eta arkitektoaren figura ezinbestekoa suertatu da, izan ere beste hainbat guraso eta ikastolako langileren laguntzaz, Erriolaren filosofia eterea fisikoki gorpuzteko ardura hartu duelako. Bere hitzen eta asmoen ildoetan barneratu gara dendaren nolakotasunak hobeto ulertu asmoz.

Laburbilduz, bi zutabetan banatzen da dendan eginiko interbentzioa: Diseinuan eta partehartzailetasunean. Diseinuari dagokionez, Gabarainek Erriola gorpuztu du dendan, soken bidez errealitatera ekarriz. Izan ere, erriola denda barruraino iritsi da, erakuslehotik sartu eta sabaitik zehar pareteraino zabaldu da, denda osoa erriolaren mugimenduz betez. Erriolaren bide beretik,

logoa harekin batera sartu da dendako sabaira, biak bat eginez: leloa eta logoa. Sinbologia konkretua islatzen du horrek: Komunitatea trinkotu eta hura josteko nahia, elkarriz loturik norabaitera iritsi eta aurrera egiteko nahia. Dendako azalera zati handiak bete dira sokekin eta bisualki ere, ederra gelditu da. Bigarren zutabea, ekintza partehartzaile bat izan denarena da: Maila guztietako ikasleen eta euren irakasleen inplikazioa bilatu da, denda bera ere denona dela irudikatzen. Adibidez, HHko haurrek errioko harriak jaso eta margotu dituzte eta dendan daude erakusgai, haurretako batzuk bertaratu ostean "hau nirea da!" aitortzeko konplexurik ez dutelarik erakusten, harrotasunez. LHkoek berriz, lan eskerga hartu dute soke betetzen egurrezko pieza guztiak eta

serigaur.

SORTU, DISEINATU!

INPRIMATZEKO KAMISETEN
PERTSONALIZAZIO
ZERBITZU BERRIA
ESKAITZEN DIZUGU.




* EDONORAKO
GARRAIOA



* SALMENTA
UNITARIOAK



* ECO-PRINT





Joan etorrian egindako auzolan kolektibo bat suertatu da guztia, Erriolako marea eta olatuak bezala.

paretetakoak, guraso helduen esku geratu dira, horrela kolektibo honen partehartzea sustatuz.

DBHkoen jarduna ere, ez da makala suertatu. Aldamioak apalategi bihurtu dituzte: oholak neurtu, doitu eta txukundu ostean, aldamioko metalezko egiturari txertatu dute pieza bakoitza egokitzen zaion lekuan. Prozesu honetan erabili diren materialak apaingarri askorik gabekoak izan dira, naturalak eta autentikoak; herri langilearen metafora modu horretara txertatu delarik. Soiltasuna eta zurruntasuna iradokitzea izan da helburua. Bestalde, Logo Biziaren ekimena denda fisikoa eta ikastolaren ekimen interaktiboaren erakusleho nagusia

suertatu da urte guzti honetan zehar. Hasieran, Erriolako logoaren pieza hutsak bildu eta paretean jarri zituzten eta ondoren, haiek edukiz betetzeari ekin zioten. Pieza bakoitzak istorio bat kontatzen du eta bizitasuna, haiek bakoitza ikastolan landu izanak ematen dio. Dendaren egoitza pieza bat ateratzen den aldiro, bere azterna markatua uzten da zeloarekin paretean eta ondoren, ikasgeletan landu eta bere edukiaren inguruan jardun ostean, berriro bueltatzen da dendara.



**SUMINISTROS SANITARIOS
OARSO, S.A.**

SANEAMENDU ETA BEROKUNTZA BILTEGIA

BILTEGIA ETA BULEGOA: Masti Loidi, 12 Poligonoa
Tlfno: 943 341543 / 943 341091

DENDA: Tulle kalea, 7 Tlfno: 943 340142

www.sanitariosoarso.com

mail: oarso@sanitariosoarso.com



“Herriarekin dugun lotura hori indartzea eta handitzea da ikastolaren erronka nagusietako bat”

Egoitz Verdugo, 2010ean Orereta Ikastolako Zuzendari Pedagogikoa izendatu zuten eta 2020tik Orereta Ikastolako Ingurumen Proiektu taldeko kidea da.

Egileak: **June Aceituno, Saioa Otegi eta Udane Nuñez**
(DBH2ko ikasleak)



Egoitz VERDUGO

Orereta Ikastolako Zuzendari Pedagogikoa

Zerk bereizten du ikastola beste ikastetxeengandik? Zeintzuk esango zenuke direla ikastolaren giltzarriak?

Ba.... Ikastola bereizten duena beste ikastetxeengandik, ikastola bat dela da. Bere eredia erabiltzen duela da. Bertan hartzen dugu parte ikasleek, irakasleek gurasoek... Beste hezkuntza komunitate mota bat sortzen dugu. Gurasoek kudeaketan, askoz gehiago parte hartzen dute. Gure ikuspegia ikastolaren, Orereta ikastolaren ikuspegia ere lotzen zaio Euskal Herri osoari, Euskal Herriko 7 herrialdeei, ikuspegia beti da nazionala, oso zentratua euskara eta euskal kulturaren zabaltze horretan eta gero oso-osoko enfokaturia berrikuntza pedagogikoari, eraldaketari, eskaintzen dugun hezkuntzari buelta bat ematen. Euskara eta euskal kultura, herritik eta herriarentzat sortua, nazio ikuspegia eta pixka bat gure kokapena, ikastola berdea izatea ikastolak daukan kokapena, daukan ingurune naturala.

Zein ekarpen egiten dio ikastolak herriari? Zein lotura du herriarekin?

Nik uste dut izugarritzeko ekarpena egin diola herriari azkenean sortu den momentutik oso zentratua, ikastolak oso argi dauka bere ekarpena izan behar dela euskara arloan eta euskal kulturaren arloan. Sortu zenean, duela 60 urte sortu zen momentutik jarraitzen dugu euskara eta euskal kulturari ekarpenak egiten. Ikastola, herritik sortutako erakundea da. Azkenean bere momentuan herritar talde batek ikusi zuen hutsune bat zegoela eta antolatu egin ziren; guraso talde bat, oso txikia bere momentuan, 6-7 guraso, 6-7 familia elkartu ziren ukuilu batean, ikastola bat sortzeko eta herritik sortua eta herriak elikatu du neurri handi batean. Lotura hori etengabekoa da.

Ikastolako komunitateak zein ezaugarri ditu? Zertan aldatu dira azken urteetan?

Nik esango nuke inplikazioa dela nagusia, hau da, gaur egun gaurko gizartean oso zaila da jendea inplikatzeko gauzetan, hori egia da gure komunitatean guraso asko, irakasle asko eta ikasle asko daudela inplikaturik egunerokotasunean; gaur egun adibidez, kilometroaken antolaketa honetan guztian ezinezkoa izango litzateke langileak bakarrik egingo balute, azkenean garrantzitsua eta erdigunean daudenak dira familiak eta horri esker inplikazioa da nagusia.

Berrikuntzari dagokionez zein aurrerapauso eman dira azken urteetan? Zein aldaketa aurreikusten dira?

Ba, beno, ari gara momentu honetan, aldaketa pedagogiko handia egiten HHn eta LHn proiektu aldaketa bat, pixka bat orain arte tradizionalki irakaslea egon da gela dagoen zentroan eta ikasleak ingurunean eta pixka bat proiektu honetan egiten ari gara da irakasleak urrutiratu eta erdigunean ikaslea jartzea. Horrek ekarri du eraldaketa arkitektonikoak egin ditugula Esmalterian, gero Linon, gero LHra eta gero kompetentzia ikuspegia, edukiari garrantzia kentzea pixkanaka eta kompetentzia erdigunean jartzea. Modu horretan, pertsonak hezten ditugu, gero eta gutxiago hitz egiten dugu ikasleez eta gehiago pertsonen, pertsona kompetenteak izatea, gaitasuna izatea erronkei erantzuteko. Kalerantz dituzten eguneroko erronkei erantzuteko tresnak eskaintzen dizkiegu. Aldaketa potenteena seguru aski etorri da urte honetan bertan, aurreko kurtso bukaeran, ebaluazio sistema erabat aldatzen ari da eta ebaluazio hezigarri baterantz goaz. Orain arte asko zentratu gara kalifikazioetan, emaitzetan, azterketen notetan... Ari gara da formazioa eta lana egiten ebaluazioa izateko hezigarria, horrek esan nahi du irakasleari informazioa eman behar diola, baina ikasleari ere bai esan behar dio zer dakien, zer ez dakien, zer egin behar duen hobetzeko.

3. Aldiz Kilometroak Gurean



KILOMETROAK 84:

Erreterian egindako lehen kilometroak 1984ko urriaren 7an izan ziren. Goizaldean, euria ari zuen goian behean eta ikastolako langile eta gurasoen artean kezka zen nagusi. Baina atertu zuen azkenean eta ehunka lagun atera ziren kalera. Herri osoa inplikatu zen jaietan eta ordurarte egon zen kilometrorik arrakastatsuen izan zen.



KILOMETROAK 99:

Oreretan izan ziren azken kilometroen edizioa 1999ko urriaren 10ean izan zen, "Bizi" lelopean. Aurreko hilabeteetan burubelarri aritu ziren lanean, sos batzuk lortzeko futbol eta pilota partidak, txirrinda martxak, kontzertuak, erakusketak, azokak... antolatuz. Zinta ikastolako lehen promozioa ikasleek moztu zuten. Nahiz eta 15 urte beranduago euriak ez zuten barkatu, sekulako giroa egon zen.

Egileak: Nahia Truchuelo, Iزارo Ruiz,
Iraia San Nazario eta Saioa Gurpegui
(DBH2ko ikasleak)



Orereta
Ikastolako HHko
irakaslea da.
Bi kilometroetan
egon da eta bere
esperientziak
aipatuko dizkigu.



AURKENE ASTIBIA

Zein kilometrotan hartu zenuen parte? Ba begira nik hartu dut parte egin diren bi kilometroetan. Ni 84an hasi nintzen lanean eta lehenengo kilometroak 84ean izan ziren, beraz hasi berritan parte hartu nuen eta gero 99koan ere bai, eta oraingoan ere bai parte hartzen ari naiz noski.

Zertan hartu zenuen parte? 84koan hasi berria nintzen eta orduan nik uste dut batez ere arropa dendan eta arropako salmentan egon nintzela. Gero 99koan egon nintzen batzorde antolatzailean, gauza guztiak antolatzen, koordinatzen eta batzorde horretan batez ere.

Zer gogoratzen duzu egun hartaz? 84koan, oso oso eguraldi txarra egin zuen eta gau osoan euria egin zuenez montatuta zeuden gauzak erori egin ziren euriaren eraginez eta orduko oroitzapena ez da guztiz gozoa. 99koan, berriz, eguraldiak gehiago lagundu zuen eta ikastolako parte hartzea handia izan zen: ikasle ohiak, gurasoak, guraso ohiak... bai, jende asko aritu zen lanean.

Zein da zure oroitzapen gogokoena? Ez dakit gogokoena den baina 99an egon zen gauza berezi bat. Hasieran ideia bat egon zen Ameriketako diasporan zeuden euskaldunekin bat egitearena eta nahi zen hemendik zenbait jende hegazkinez hara joan, han ere kilometro bat egin eta horrela. Gero azkenean hori ez zen posible izan, oso garestia zelako eta kilometroen helburu bat ere dirua lortzea bazelako gauzak egiteko. Baina beno, haiekin kontaktuan egon ginen eta haiek ere Kilometroak egin zituzten egun berean, bai Idaho Boisen eta hemen.

Zein ekintza egon ziren? Orduan ibilbidea egiten zen eta ohitura handia zegoen zirkuitu osoa egitekoa, jendeak hasieratik bukaerara zirkuitu osoa egiten zuen normalean.

Lehen esan duzu jende asko egon zela, baina, jendeak asko disfrutatu zuten? Bai, bai; gazteek, familiek, jende helduagoek, bai, primeran pasa zuten. Gainera ekintzak denentzako antolatzen dira orduan ba bai, asko disfrutatu zuten jendeak.

Zenbat denbora hartu zuen dena antolatzeak? Egia da orain urte osoan egon direla ekintza ezberdinak, lehen ez zen horrela izaten, lehen egun hori bakarrik antolatzen zen, orduan urte osoan hasten ginen pixka bat lanean baina lana batez ere egiten zen azkeneko hilabeteetan. Gogoratzen naiz Xabier Letereren kantaldi bat eta horrela zerbait egin zela aurretik baina ez orain bezala, lehen batez ere indarra zuekan egunak berak, orduan eguna antolatzen zen.

Eta aurtengo Kilometroetan parte hartuko duzu? Bai, aurtengo Kilometroetan jada batzorde batzuetan lanean ari naiz eta beno, gero behar den guztian ere bai. Orain arte ekintza guztietan parte hartu dut, eta gustura jarraituko dut horretan.



IÑAKI ERKIZIA



MARI JOSE MENDIOLA



Oreretan egon diren bi kilometroen edizioetan egon da, bai ikasle bezala eta baita gazte bezala ere. Aurten ere ez da jaialdian faltako, baina gurasoen lan-taldean arituko da elkarlanean.

Zein kilometrotan hartu zenuen parte?

Nik ezagutu ditut egin diren biak, 84koa eta 99koa biak. Lehenengoan ikaslea nintzen eta familiarekin egin nuen batez ere, eta bestean ia ikastola utzi eta gero gazte moduan.

Zertan hartu zenuen parte?

Lehenengoan ikasle bezala, gehienbat ekintzetan. Nire familia eta gurasoak dena antolatzeke saltsan zeudenez ni ere bai tabernan aritu nintzen dena antolatzen. Baina, 99koan bakarrik parrandan.

Zer gogoratzen duzu egun hartaz?

Ba egun handia izan zela, bi egun desberdin baina handiak. Ikastola osoa zegoen unibertsoaren zentroan, kanpotik etortzen ziren denak herria ezagutzera, eta beno, ba guk herria erakusten genuen, ikastola, Añabitarte... gauza oso polita izan zen.

Zein da zure oroitzapen gogokoena?

Nire oroitzapena da izugarritzko eguna pasa eta gero Añabitartetik behera oinez autobusez egiten genuen hori ikustea, handik beherantz, herrirantz, oso polita izan zen.

Ze ekintza egon ziren?

Garai horretan oso inportantea zen ibilbideari buelta osoa ematea. Nik behintzat familiarekin, beste kilometroetan egiten genuen postu guztietatik pasa eta batzuetan dantza, besteetan bokatak, besteetan haurrentzat jolasak eta hori zen ibilbidea.

Jende asko egon zen? Jendeak asko disfrutatu zuen?

Pila bat, izugarritzko pila. Bai ibilbidean eta bai gero herrian ere, herriko toki ezberdinetan, tabernetan, herria dena gainezka zegoen. Bai, nire ingurukoek pilo bat.

Zenbat denbora hartu zuen dena antolatzeak?

Ez dakit, nire gurasoak nik uste dut aurreko kilometroetatik ia buruan zutela hurrengo urtean guri tokatzen zitzaigula eta hori, batzordeak prestatu, non sartu pertsona bakoitza eta gero ere ikasleekin hasi ziren aurreko ikasturtean. Izan ere, gero ikasturtea hasi eta segituan, hilabetera, denak egon behar zuen prest.

Aurtengo kilometroetan parte hartuko duzu?

Bai noski, aurten gurasoa izango naiz, beraz, hirugarren modu batera ezagutuko dut.



Orereta Ikastolako DBHko irakaslea da. Bi kilometroetan egon da eta bere esperientziak aipatuko dizkigu.

Zein kilometrotan hartu zenuen parte?

Beno ba bitan hartu dut parte, 84koan eta bestea 99koan.

Zertan hartu zenuen parte?

Ba gauza desberdinetan. Urtean zehar, esaterako, erakusketa bat antolatu zen egun horretarako. Egunean bertarako pailazoak behar ziren eta beraz haiekin harremanetan jarri ginen antolatzeke. Trafikoa eta ibilbidea non egingo zen ere pentsatzeko taldean parte hartu nuen.

Zer gogoratzen duzu egun hortaz?

Bi kilometro oso desberdin izan ziren. Lehenengoan erakusketak egin genituen, jendeari erakusteko nola zen ikastola bat lehengo garaietan, argazkiak etakutsiz etab. Bigarrenean oso eguraldi txarra egin zuen, esan nahi dut, sarreran egon ginen jendea laguntzen sartzen eta horrelako gauzak.

Zein da zure oroitzapen gogokoena?

Gogokoena ba aurretik egin genuen lanarena. Jende asko ezagutu nuen, jende askorekin harremanetan jarri ginen eta nik uste oso aberatsa izan zela alde horretatik.

Zein ekintza egon ziren?

Uf, denetarik. Erakustetak, kirol ekintzak, ikuskizunak, arte eta marrazketa txokoa, plastika txokoa... Gero taberna desberdinak, denda... gauza asko.

Jende asko egon zen? Jendeak asko disfrutatu zuen?

Bai, bai. Bigarrenean nahiz eta eguraldi txarra izan gero eguerdi partean hobetu egin zuen eta orduan gero jende asko bildu zen. Bakoitzari galdetuko beharko zaio disfrutatu zuten ala ez ezta? Baina bai, asko disfrutatu nuen nik.

Zenbat denbora hartu zuen dena antolatzeak?

Ba urtebete bai, esaten dutenean kilometroak halako herrian izango da eta zein ikastolak hartuko duen ardura, segituan jendea mugitzen hasten da.

Aurtengo kilometroetan parte hartuko duzu?

Bai, ahal den neurrian bai. Ez dakit zein ekintzatan zehazki, baina egunean berean parte hartzeko asmoa dut.



Bihotz urdina

AKVARIUM DONOSTIA / SAN SEBASTIAN



LABORAL 
kutxa

Errespetuz begiratzeko, itsas ingurunea, itsasoa eta bertako biztanleak sentsibilizatzeko eta ezagutzeko proiektua da.

Proiektu honetan askotariko jarduerak hartuko dute parte, ia beti itsasoarekin eta ingurumenarekin lotutakoak (14. GJH), baina baita gure **Bihotz Urdina**, gure aletxoak, ekar dezakegula uste dugun beste eremu batzuekin lotutakoak ere. Osasuna eta ongizatea (3. GJH), genero-berdintasuna (5. GJH), izendapenen murrizketa (10. GJH), hiri eta komunitate jasangarriak (11. GJH), etab...



Bihotz urdinaren *lagunak*



Bihotz Urdinaren Lagunak elkarteko kide izateko, jarraitu <https://www.bihotzurdina.com/bihotz-urdinaren-lagunak/> esteka eta bete formularioa, egiten ditugun jarduera guztiak kontatuko dizkizugu eta opari zoragarrien zozketetan sartuko zara.





Diseinua, ingeniaritza eta fabrikazio aurreratua askotariko sektoreetarako.

Soluzio aurreratuak sektore hauetarako, besteak beste, automobilgintza, osasuna, sarbideen kudeaketa, mugikortasuna, energia berriztagarriak, azpiegitura kritikoak, meatzaritza eta aeronautikarako.




www.erreka.com



Mondragon
Unibertsitatea

*Learning
from reality*



mondragon.edu/prest

UNIBERTSITATE GRADUAK

